



Bizitzako etapetan  
**finantza-entitateekin**  
izaten ditugun  
harremanak



eskola & finantzak  
PROGRAMA



Caja Vital  Vital Kutxa

Pertsona eta finantza-entitateen arteko harremanak

# ez dira beti berdinak

Pertsona eta familien bizitzan zehar sortzen diren ekonomia- eta finantza-beharren araberakoak izaten dira harreman horiek.

Ikuspegi horretatik, laburbilduz, jendeak finantza-entitateekin duen lotura bizitzako lau esparruk edo garai nagusik baldintzatzen dutela esan genezake.

## 1 Ikasle gazteak

Gazteak **ikasketa-garaian** hasten dira finantza-entitateetara hurbiltzen. Funtsean, **aurrezki-libretak eta zordunketa-txartelak** eskatzen dituzte, beren diru-sarrera mugatuak antolatzeko.

Interes handia dute **kirolari, kulturari, aisiari, bidaiei** eta antzekoei lotutako proposamenekiko. Proposamen horietatik asko finantza-entitateen bidez iristen zaizkie.

Horiez gain, interesgarriak iruditzen zaizkie **hizkuntza-ikastaroak, prestakuntza-ikastaro eta masterren** eskaintza eta finantzaketa, prestakuntza errazteko **bekak** eta laguntzak etab.



## 2 Lan-mundua

Prestakuntzari lotutako helburuak lortutakoan, lanean hasteko garaia iristen da. Lehenengo **nominak** iristen dira, motor eta ibilgailuak **finantzatu** behar dira, eta **aurrezki-soberakinei** etekina atera behar zaie.

Garai horretan hasten dira pentsatzen emantzipazioaz, norbere familia sortzeaz eta **etxebizitza** alokatu edo erosteaz. Orduantxe sortzen da banku eta aurrezki-kutxekin harremanak estutzeko premia, **hipoteka-maileguen** bidez.

Gehienetan, ohiko etxebizitzaren erosketa finantzatzen duen entitate bera izango da garai horretan kontratatzen diren finantza-produktu eta -zerbitzu gehien hornitzailea.



## 3 Helduaroa

Garai horretan, pertsona eta familien ekonomia pixkanaka finkatu egiten da. Diru-sarrerak egonkorak dira, eta hipoteka-maileguen kuotak gero eta txikiagoak.

Sasoi horretan, familiarentzako **bizitza-asegurua** kontratatu ohi da eta etorkizuneko gastuei aurre egiteko aurrezki-soberakin txikiak sortzen dira: seme-alaben unibertsitate-ikasketak, automobila edo etxebizitza aldatzea etab.

**Erretiro-pentsioa** osatzeko eta, ahal dela, **bigarren etxebizitza** erosteko aurrezteko aukeraz pentsatzen hasten dira pertsona asko. Horrez gain, **errenta-aitorpenean** zerga gutxiago ordaintzeko irtenbideak bilatzen dituzte.

Adin horretan, finantza-entitateekiko lotura estuagoa izaten da, eta inoiz baino finantza-produktu eta -zerbitzu gehiago kontratatzen dira.

## 4 Hirugarren adina

Oso talde heterogeneoa da, eta era guztietako egoerak sortzen dira finantza-entitateekiko harremanetan. Hala ere, adin-tartearen eta ekonomia-egoeraren arabera, hiru talde bereiz ditzakegu:

- Lehenengoan “gazteenak” ditugu, normalean **aurre-erretiroa hartu dutenak eta erretiroa hartu berri dutenak**. 55 eta 70 urte bitartean dituzte, eta bizitzako sasoi horretan **gozatzeari balio handia ematen diote**. Oso aberasgarriak iruditzen zaizkie kultura-proposamenak, aisialdirako aukerak, prestakuntza eta abar.
- Aurrezkiak dituzte, eta horientzat errentagarritasun ona nahi dute. Arriskuarekiko nahiko profil kontserbadorea dute. Gero eta hobeto ezagutzen dituzte finantza-produktu eta -zerbitzuak, eta, beraz, **finantza-kultura ona** dute.
- Bigarren taldea **70 urtez gorakoek** osatua da. Bizi-kalitate ona dute oraindik, baina sarrera ia osoak **pentsioaren** bidez lortzen dituzte, eta urtetik urtera pentsioa gero eta murriztagoa egiten zaie.
- Oro har, beren aurrezkiarako **erabateko segurtasuna** nahi dute, arriskutik ihes eginez eta gutxieneko errentagarritasuna lortuz. Ez dute finantzaketarik behar, eta beren aurrezkiak sartzeko **eperako gordailuak** aukeratzen dituzte.
- Azken taldea **adin handiko pertsonak** osatua da. Kasu askotan, autonomia pertsonala mugatua dute. Beste batzuek, berriz, mendekotasunak dituzte, eta laguntza behar dute. Diru-iturri bakarra pentsioa da. Hala ere, litekeena da ondare onak izatea: esaterako, etxebizitza baten jabe izatea.

Pertsona horiek beren bizi-kalitatea hobetu nahi izaten dute entitate publiko edo pribatuaren –Vital Kutzaren Mejora Fundazioa dugu horietako bat– programa espezifikoaren bidez. Oso finantza-premia txikiak dituztenez, kasu jakin batzuetan, finantza-produktu batzuk eskuratzeko aukera dute: adibidez, alderantzizko hipoteka. Horren bidez, pentsioa osatzeko diru-sarrerak lor ditzakete, besteak beste, zaintzaileak kontratatzeko edo, behar izanez gero, zahar-etxe pribatu batean sartzeko.

# 1 Nerabeak eta ikasle gazteak

Bizitzako sasoi horretan, gazteek ez dute sarrera finkorik izaten. Normalean egunean bizi dira, gurasoek eta gainerako senitartekoek astero edo hilero eman ohi dieten diruarekin.

Finantza-entitateekin harreman mugatuak dituzte oraindik, eta adinari dagozkion erosketak txikiei eta aisialdiko eta presakuntzako jardueri lotuta daude harreman horiek.

## Talde horrentzako produktuak eta zerbitzuak

### Haur-libreta

Itsulapikotik lehenengo banku-kontura igartzeko garaia da. Urrats hori emateko biderik egokiena haur-libreta da. Kontu horren helburu nagusia **didaktikoa** da: **aurrezten irakastea**.

Haur-libretak dirua askatasunez sartzeko aukera ematen du. Errentagarritasun txikia badu ere, ez du gasturik eta komisiorik izaten. Haren ezaugarriak direla-eta, ezin da ordainketarik helbideratu eta ez du txartelen ordainketak zorduntzeko balio.

Jaio berriei haur-libreta irekitzeko ohitura oso zabaldua dago guraso eta aitona-amonen artean. Aurrezkiak erabiltzeko gurasoen baimena behar dute haurrek, tutore gisa jarduten baitute.

### Aurrezki-libreta

Haurrek 14 urte inguru dituztenean, etapa berri bati ekiten diote, eta asteko eta hileko ordainketak kudeatu behar izaten dituzte. Nolabaiteko askatasuna lortzen dute lagunekin irteteko, eta gastuak izaten dituzte telefono mugikorretan, arropan, liburuetan... Gastu horiei aurre egiteko lehenengo aurrezki-libretak irekitzen dituzte eta txartelak erabiltzen hasten dira. Haur-libretaren ordeztzerako aurrezki-libreta irekitzeko unea iristen da.

- Libretari esker, haurrek beren aurrezki txikiak (udako lanetan, urtebetetzeetan, Gabonetan... lortzen dituztenak) gorde ditzakete, geroago erabiltzeko.
- Txartelez egindako ordainketak zorduntzeko aukera ematen du kontuak.

### Zordunketa-txartela

Horrelako txartelen bidez, kutxazainetan esku-dirua atera eta mundu zabaleko saltokietan erosketak egin daitezke. Ordaintzeko unean libretan dagoen saldoa soilik erabil daiteke, erosketaren zenbatekoa unean bertan zorduntzen baita kontuan. Normalean doakoa da adin jakin bateraino, eta, saltokietan eta txartela jaulki duen entitatearen kutxazainetan erabiliz gero, ez du kosturik izaten. Beste kutxazain batzuetan erabiliz gero, berriz, komisioak ordaintzen dira. Vital Kutxaren TeleCaja Joven txartela, adibidez, doakoa da 30 urte bete arte, eta gutxienez 30 euro ateratzen bada, ez du komisiorik kobratzen entitatearen kutxazainetan edo Euro 6000 sarekoetan.

### Etiket kanpo ikastea

Gazte askok, Unibertsitatean hasten direnean edo Erasmus edo Socrates programa egiten dutenean, beste hiri batera joan behar izaten dute. Aldaketa horrek, kasu batzuetan, lehenengo aldiz bakarrik bizitzeko beharra eragiten du.

Norbere kasa bizitzen eta norbere ekonomia kudeatzen ikasten hasteko modu bat da, helduarorako prestatzeko.

Horrelakoetan, asteko edo hileko aurrekontua planifikatzea da garrantzitsua:

- Gazteak zenbat diru jasoko duen jakin behar du, bai gurasoengandik, bai beka, noizbehinkako lan eta antzekoetatik.
- Eguneroko gastu finkoak kalkulatu behar ditu (alokairua, garratua, elikadura, fotokopiak), baita aisiari, kirolari eta dibertsioari lotutakoak ere.
- Unibertsitateko ikaslea izateagatik zer abantaila eta deskontu dituen jakin behar du.
- Konfiantzazko finantza-entitatea aukeratu behar du, ikasketak-garaiko tramite guztiak erraztuko dituen: adibidez, diru-transferentziak eta -intsuldaketak, ordainagirien ordainketa era



## Espainiako Bankuak gainbegiratutako finantza-entitatea aukeratu behar da, segurtasunagatik

helbiderapenak, kutzazain-sare handia, ahalik eta komisorik txikiak txartelak erabiltzeagatik, linea bidezko eragiketak eta dibisa-trukeak.

### Finantza-entitateen web-orria

Web-guneak informazio-iturri ezin hobeak dira gaur egun finantza-entitateen produktu eta zerbitzuak ezagutzeko. Gazteen kasuan, gainera, beraiei eskainitako prestakuntza-, kultura- eta aisia-eskaintzak ezagutzeko bide irekiak dira. Honako aukera hauek azpimarra ditzakegu:

**Finantza-produktu eta -zerbitzuen** ezaugarri eta prezioei buruzko **informazio** zehatza.

**Banku elektronikoa** (Vital Kutxaren kasuan, Vitalnet): Interneten bidez eragiketak egiteko aukera ematen du, edonon eta eguneko 24 orduetan. Adibidez, honako eragiketa hauek: txartelaren mugimenduak kontrolatzea, telefono mugikorra kargatzea, transferentziak edo intsuldaketak egitea edo kultura-ekitaldi eta kontzertuetarako sarrerak erostea.

**Aisialdia:** jarduera nautikoak, jaibusu, asteburuko irteerak elurretara, "erabateko desafioko" kirola, hizkuntza-ikastaroak, bidaia etab.

**Deskontuei buruzko informazioa:** saltoki, bidaia, kontzertu, museo eta abarretan, TeleCaja Joven txartelaren eta Gazte Txartelaren bidez.

**Kirol- eta kultura-agenda:** erakusketak, kultura- eta kirol-ekitaldiak, KREA Expresión Contemporánea etab.

**Askotariko informazio-kanalak:** prestakuntzari buruzko informazioa (bekak, unibertsitateak, graduatu ondokoak eta masterrak), enpleguari buruzkoa (aldi baterako lana, autoenplegua, atzerriko lana etab.), entitate nagusien web-orrietarako sarbidea, gazte-gida etab.

### Gizarte-sareak

Gizarte-sareak jendarteko komunikazioari iraultza ekarri dion fenomeno soziala da. Areago, sektore batzuegana iristeko bide bakarra da, batez ere gazteenengana. Hori dela eta, Vital Kutxa aurreneko finantza-entitateetako bat izan da Facebook eta Twitter sareekin bat egiten, bezeroekin komunikazioa bultzatzeko eta informazio-bide zuzenagoa, pertsonalagoa eta bi norakoa eskaintzeko.

## Finantza-kontsumo arduratsuari buruzko aholkuak nerabe eta ikasle gazteentzat:

- Gazteari gerora erabakiak hartzen lagunduko dioten gutxieneko finantza-kultura eta -prestakuntza jasotzeko garaia egokia da. Web korporatiboetan zehar nabigatu behar da, entitateak hobeto ezagutzeko, eskainitako finantza-aukerak eta aisialdiak aprobetxatzeko eta haien produktu, zerbitzu, ezaugarri, kostu eta abarren berri izateko.
- Zenbat eta informazio gehiago lortu, are errazagoa izango da gazteen beharrei egokien erantzungo dien finantza-entitatea aukeratzea.
- Finantza-entitate serioak aintzat hartu behar ditugu, baita gizartearekiko, ingurumenarekiko, garapenarekiko eta aberastasun egonkorra sortzen duten proiektuekiko konpromisoa dutenak ere.
- Espainiako Bankuak gainbegiratutako finantza-entitate bat aukeratzea nahitaezkoa da.

## 2 Lan-merkatuan sartzen diren gazteak

Gazteak, laneraten direnean, lehenengo nominak eta sarrera egonkorak jasotzen hasten dira.

Lehenengo enpleguari esker, finantza-askatasuna izateko itxaropenak sortzen dira, nahiz eta behar eta erantzukizun berriak ere agertu.

Garai horretan hasten dira benetan finantza-entitateekin produktuak kontratatzen: kreditu-txartelak, ibilgailuak erosteko mailegu pertsonalak eta emantzipazioa prestatzea.

Gazte askorentzat, emantzipazioak bete ezinezko ametsa dirudi. Etxebizitza baten jabe izatea oso sustraitutako ohitura da eta, askoren ustez, alokairua ordaintzea dirua botatzea da.

Gastua unean uneko egoera ekonomikoari egokitzea da irtenbiderik onena. Kontuan izan behar dugu etxe baten jabe izateak kostu handia dakarrela: maileguaren eta hipotekaren gastuak, hileko kuota ordaintzea, etxe-aseguruak, zergak, mantenimendua eta abar. Horregatik, alokairua hasierako irtenbide egokia izan daiteke


## Gazteentzako AURREZKI produktuak

### Aurrezki-libretak eta kontu korrontekak

- Erabateko likidezia. Dirua askatasunez sartu eta atera daiteke.
- Erraztasuna. Irekitzeko baldintzak errazak dira.
- Produktu hori aurrezteko baino erabilgarriagoa da eragiketarako egiteko. Egunez egun sortzen diren diru-soberakinak kudeatzeko egokia da.
- Nominak eta ordainagiriak helbideratzeko aukera ematen du, baita kontuari lotutako zordunketa- eta kreditu-txartelak lortzeko ere.
- Errentagarritasun handiko kontua ez denez, erabiltzen ez diren aurrezkiak beste produktu batzuetan inbertitzea komeni da.
- Kontu korrontearen euskarri fisikoa txeketegia da (gero eta gutxiago erabiltzen da, ordainketa elektronikoaren edo bestelako ordainbideen mesedetan), eta aurrezki-kontuarena libreta.
- Administrazio-komisioak eta mantentze-gastuak kobratu ohi dira. Vital Kutxan, adibidez, guztiz doakoa da 30 urtera arteko gazteentzat, nomina helbideratuta dutenentzat eta aurrezki-libretetan batez besteko 300 euroko edo kontu korrontean 600 euroko saldoa dutenentzat.

### Etxebizitza-kontua

- Ohiko etxebizitza erostea helburu duen aurrezki-kontua da. Ezin da ordainagiririk helbideratu, aurrezkien helburu bakarra etxebizitza erostea delako.
- Kontu errentagarria da. Saldoaren arabera interesak ordaintzen ditu: zenbat eta saldo handiagoa, orduan eta interes-tasa handiagoa eskaintzen du. Pertsona bakoitza etxebizitza-kontu bakar baten jabe izan daiteke.
- Erabateko likidezia du. Behar izanez gero, aurreztutako dirua berreskuratu egin daiteke, baina abantaila fiskalak galtzen dira.
- Errentaren gaineko aitortpenean urtean aurreztutako zenbatekoaren % 18 desgrabatzen da. Gehieneko dedukzioa 2.160 eurokoa da. Indarrean dagoen legediaren arabera, etxebizitza erosteko gehieneko epea 6 urtekoa da.
- Etxebizitza erosteko normalean behar izango den hipoteka-mailegua eskatzeko baldintza hobek eskaintzen ditu.
- Bezero gaztea finantza-entitatearekin estu-estu lotzen duen produktua da. Horregatik, abantaila proportzionalak eskaintzen ditu.





Etxebizitza baten jabe izateko ohitura oso sustraituta dago gure gizartean, eta, askoren ustez, alokairu bat ordaintzea dirua botatzea da

### Eperako eta errentagarritasun handiko gordailuak

Aurrezkiekin mugaegun batekin lotzen duten produktuak dira. Horregatik, kontratatzen ditugunean, kontuan izan behar ditugu, alde batetik, aurrezkiekin erabili behar izanez gero ezarritako erabilgarritasun-baldintzak, eta, bestetik, lortuko dugun interes-tasa.

### Aurrezkiei etekina ateratzeko bestelako produktuak

**Produktu bat kontratatu aurretik, ondo ezagutu behar ditugu** kostuak, ezaugarriak, bermeak, erabilgarritasuna eta komisiak.

- **Inbertsio-fondoak:** Talde inbertsioko erakundeak dira. Horien ondarea "fondoko partaide" deitutako inbertitzailez osatutako taldea da. Administrazioa eta kudeaketa sozietate baten esku dago, eta inbertsioak bermatu eta zaintzeko eginkizuna duen entitate gordailuzaina ere badute (bankua edo aurrezki-kutxa izan daiteke).

Inbertitzaileek beren diruari errentagarritasuna atera nahi diote. Errentagarritasun hori aldakorra izango da, arriskuaren eta inbertsioek xede duten aktiboaren arabera (errenta finkoa, errenta aldakorra, mistoa, burtsako adierazleen bilakaerari lotutakoa edo diruaren prezioari lotutakoa).

- **Obligazioak, ordaindukoak, bonoak etab.** Estatuak, erakundeak, finantza-entitateak eta enpresek beren jarduerak finantzatzeko jaulkitako tituluak dira. Trukean, interesak ordaintzen dituzte. Interes horien epe, tasa eta maiztasunez gain, garrantzizkoa da jaulkitzailearen kaudimena egiaztatzea.
- **Balio-burtsak.** Antolatutako merkatuak dira eta erregulazio ofizialaren eraginpean eta gainbegiraturata daude. Burtsako akzioak eta baloreak edo harpidetza-eskubidea sorrarazten dutenak negoziatzeko eskumena duten bakarrak dira. Horiez gain, errenta finko publikoa eta pribatua ere kontratatzen da burtsan, baita produktu deribatuak, egiaztatuak eta kotizatu-tako fondoak ere.

### Gazteentzako maileguak eta finantzaketa-irtenbideak:

- **Aurrerakinak eta nomina-kredituak.** Kopuru txikiko maileguak eta kredituak dira (3.000 euro ingurukoak). Batzuetan interesik gabe edo oso interes-tasa txikian eskaintzen dira eta itzultzeko epeak oso laburrak dira. Nomina helbideratuta duten bezeroei eskaintzen zaizkie.
- **Mailegu pertsonalak edo kontsumo-maileguak.** Motor bat, automobil bat, etxetresna elektrikoak, altzariak eta abar finantzatzeko helburua dute. Sarrerak egonkorak badira, berme pertsonala izaten dute, hau da, mailegu-hartzaileak bere ondare pertsonalekin erantzuten du ordaindu ezean.
- **Komenigarria da eskaintzak alderatzea,** honako kontzeptu hauek kontuan izanda: interes-tasa, irekitzeko eta kitatzeko (dena edo zati bat) komisioak, amortizazio-epea, ordaindu beharreko hileko kuotaren zenbatekoa eta maileguak formalizatzeko balizko bestelako gastuak.


Konparazio horiek egiteko, hobe da UTB (Urteko Tasa Baliokidea) adierazlea erabiltzea maileguaren kostu erreala eta osoa zehazteko; izan ere, adierazle hori kalkulatzeko, interesez gain, bankuko komisioak eta gastuak ere hartzen dira aintzat.

- **Kreditu-txartela.** Kontratuan, titularrak txartelaren bidez ondasunak eta zerbitzuak ordaintzean erabil dezakeen gehieneko kreditua zehazten da. Kreditua izanda, ez da nahitaezkoa kontuan saldoa egotea. Hala ere, hurrengo hilaren hasieran itzultzeko konpromisoa dago. Entitateek ordainketak zatitzeko eta atzeratzeko aukera eskaintzen dute, baina zorraren gaineko interesak ezarrita.

Horrez gain, kutzazainetan eskudirua ateratzeko aukera ematen du kreditu-txartelak, baina kontuan dirua izanez gero, aukera hori ez da gomendagarria, dirua kredituan ateratzeagatik komisioak ordaindu behar direlako.

Kreditu-txartela zentzuz erabili behar da, neurriz gaineko zorrik ez egiteko.

- **Hipoteka-mailegua.** Ohiko etxebizitza erosteko beharrezkoa izaten da normalean. Agian, sina dezakegun finantza-kontraturik garrantzitsuena da; izan ere, gure ekonomia baldintzatuko du ia-ia bizitza osorako. Hain garrantzitsua denez, atal oso bat eskainiko diogu.



### Talde horrentzako bestelako produktu eta zerbitzuak

- **Banku elektronikoa.** Ohiko sukurtsaletan egin daitezkeen eragiketa guztiak eguneko 24 orduetan eta edozein leku edo herrialdetan egiteko aukera ematen du, Interneteko konexioa duen ordenagailua erabilita. Gure kasuan, zerbitzuak Vitalnet du izena.
- **Telefono mugikorraren bidezko bankua.** Zerbitzu sortu berria da eta banku elektronikoaren antzera funtzionatzen du, baina kasu horretan erabilitako banku-kanala telefono mugikorra da.
- **Telefono bidezko bankua.** Hainbat finantza-eragiketa telefonoz egiteko aukera ematen du. Zerbitzu hori erabiltzeko izena eman eta konfidentzialtasun-gakoak eskuratu behar dira, eragiketen segurtasuna bermatzeko. Gero eta gutxiago erabiltzen da, horren ordez Internet eta telefono mugikorraren bidezko bankua erabiltzen baita gero eta sarriago.
- **Kutzazain automatikoak.** Tresna elektroniko horiek, batez ere, eskudirua ateratzeko aukera ematen diote txartelaren titularrari. Gaur egun, ohiko bestelako finantza-eragiketak egiteko aukera ere ematen dute (intsuldaketak, ordainagiriak ordaintzea, telefono mugikorrak kargatzea, garraio-bonoak kargatzea eta abar).



## Talde horrentzako finantza-kontsumo arduratsuari buruzko aholkuak

- **Finantza-entitateak ezagutzeko web korporatiboak erabili behar ditugu.** Produktuak eta zerbitzuak, euren ezaugarri eta kostuekin. Produktu bakoitzaren erabilgarritasuna ezagututa, zuzen erabil dezakegu produktu hori.
- Etapa horretako finantzaketa-beharrak ugariak izanik, mailegu-eskaintza bakoitzaren baldintzak eta ezaugarriak alderatu behar ditugu. Orobat, nomina entitatean helbideratzeak eskaintzen dituen abantailak ezagutzea nahitaezkoa dugu.
- Ohiko etxebizitza erosteko hipoteka-mailegu bat kontratatzea funtsezkoa izaten da pertsonen bizitzan. Kasu gehienetan, bizitzako kontraturik garrantzitsuena da, urte askotarako lotura sorrarazten baitu.

Beraz, baldintzak eskatu behar dizkiegu hainbat entitateri, proposamenak alderatu eta negoziatu. Finantza-entitate serioak malguak izaten dira beti eta gero eta balio handiagoa ematen diete produktu eta zerbitzu batzuk kontratatzen dituzten bezeroei.

- **Espainiako Bankuak gainbegiraturako finantza-entitateekin lan egin behar dugu beti.** "Finantza-txiringi-toetatik" ihes egin behar dugu.

- **Saltokiko Terminala edo ST.** Datafono izena ere hartzen dute. Saltokietan kokatutako gailu elektronikoak dira eta, haiei esker, saltokietan produktuak edo zerbitzuak eros daitezke txartelaren bidez, txartela jaulki duen entitateak eragiketa egiaztatu eta baimendu ostean.
- **Maileguaren amortizazio-asegurua:** Bizitza-aseguru mota bat da, eta, aseguratuaren heriotza edo erabateko baliarintasun iraunkorra gertatuz gero, aseguruari lotutako mailegua ezeztatzea du xede.
- **Etxe-asegurua:** Etxebizitzek izan ohi dituzten arriskuak estaltzen dituen poliza da. Poliza horrek **edukitzailea** (etxebizitza, instalazio finkoak eta erantsitako dependentziak), **edukia** (altzariak, etxetresna elektrikoak, bitxiak, arte-lanak etab.) edo biak aseguratzeko aukera ematen du.

### Gazteak emantzipatzeko laguntza publikoak

- **Babes Ofizialeko Etxebizitzak (BOE).** Horrelako etxebizitzak eskuratzeko prozedura araututa dago eta Administrazioak finkatutako gehieneko prezioa dute. Horrez gain, bestelako abantailak eskaintzen dituzte, hala nola, BEZa murriztea eta notario eta erregistratzaileen zergak eta ordainsariak ordaintzeko hobariak.

Erkidego bakoitzak BOEko etxebizitzak eskuratzeko arauak finkatzen ditu: gutxieneko diru-sarrerak, familiako kide kopuruaren arabera aintzat hartzen den azalera erabilgarria etab.

- **Emantzipatzeko oinarrizko errenta, 2007aren amaieran onartua.** Hileko 210 euroko errenta da, 22 eta 30 urte bitarteko gazteei etxearen alokairua ordaintzen laguntzeko. Errentamendu-kontratua eta 22.000 eurotik beherako diru-sarrera erregularrak (6 hilabeteko antzintasuna, gutxienez) eduki behar dira.
- **Emantzipazioa eta alokairua sustatzeko laguntzak.** Alokairu-kontratua duten gazteei Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kuota kenkariak eskaintzen dizkiete laguntza horiek. Araban, eskumen horiek Eusko Jaurlaritzaren esku daude.
- **Bestelako laguntzak.** Vital Kutzaren **Vitalquiler** proiektua aitzindaria da Estatuan, eta dagoeneko beste entitate batzuek kopiatu dute.

Vitalquiler Gasteizko zenbait auzotan banatuta dauden 1.000 etxebizitzaz osatutako parkea da. Etxebizitza horiek gazteei eskaintzen zaizkie alokairu-erregimenean eta lagundutako prezioetan, etxebizitzaren tamainaren, maizterren diru-sarreraren eta Entitatearekin duten bezero-harremanaren arabera.

# 3 Helduak

Bizitzako garai horretarako, pertsonek eta familiek nolabaiteko egonkortasun ekonomikoa lortzen dute, oro har. Etxebizitza erosteko eskatutako hipoteka-maileguen ordainketak bukatzeaz egoten dira, eta diru-sarrera finkoek aurrezteko aukera ematen dute, etorkizuneko gastuei aurre egiteko. Gastu horietako batzuk seme-alaben unibertsitate-ikasketak izan daitezke.

Beste era bateko finantzaketa-beharrak sortzen dira: ibilgailu berria eskuratzeko, etxean konponketak egiteko edo altzariak erosteko, adibidez. Zordunketa- eta kreditu-txartelak erruz erabiltzen dira.

Bizitza-asegurua kontratatzeko, aurrezkien bidez erretiro-pentsioa osatzeko edo bigarren etxebizitza erosteko erabakia hartzen du jende askok.

Banku elektronikoa gero eta gehiago erabiltzen da finantza-eragiketarako egiteko.

Bezere helduen eta finantza-erakundearen arteko lotura guztietan estuena izaten da, eta produktu- eta zerbitzu-aukerarik handiena ere garai horretan eskaini ohi da.

## Helduentzako AURREZKI/ INBERTSIO produktuak

Inbertitzea eta aurreztea ez da gauza bera. **Inbertsioetan, aurrezkien zati bat arriskuan jartzen da, etekin handiagoak lortzeko asmoz.** Inbertsioekin asko irabazten da batzuetan, baina litekeena da ezer ere ez irabaztea edo inbertitutako dirua galtzea, eta horretarako prest egon behar dugu.

- **Eperako gordailuak eta errendimendu handikoak.** Horrelako gordailuetan sartutako dirua ezin da atera mugaeguna iritsi arte. Beraz, kontratatatu aurretik, eskuragarritasun-baldintzak (beharren bat sortuz gero) eta interes-tasa hartu behar dira kontuan.
- **Inbertsio-fondoak.** Talde inbertsioiko erakundeak. Ondarea inbertsiogile talde baten (fondoaren parte-hartzaileen) esku egoten da. Sozietate batek (kudeaketa- eta administrazio-arduradunak) eta erakunde gordailuzainak (bankuak edo aurrezki-kutxak) administratzen ditu, eta inbertsioak behatzeaz ere arduratzen da.

Inbertsiogileen helburua diruari etekina ateratzea da. Etekina, ordea, ez da izaten beti berbera, aldatu egiten baita, arriskua- ren eta inbertsioei lotutako aktibo moten arabera. Aktibo horiek hainbat eratakoak izan daitezke: errenta finkoa, aldakorra zein mistoa, burtsa-indizeen bilakaera edo diruaren prezioa.

- **Gordailu mistoak edo konbinatuak.** Finantza-erakunde askok eskaintzen dituzte. Oro har, eperako gordailu batez eta produktu deribatu edo inbertsio-fondo batez osatutako gordailuak

izaten dira. Arriskua eta segurtasuna uztartuz, errentagarritasun ona lortzea dute helburu. Gehienetan bermatuta egoten dira, inbertsiogileak mugaegunean hasierako zenbatekoaren % 100 eta interesak eskura ditzan.

- **Obligazioak, ordaindukoak, bonoak eta altxorraren letrak.** Estatuak, erakundeek, finantza-entitateek edo enpresek titulu horiek kaleratzen dituzte, beren jarduerak finantzatzeko, interes-tasa jakin baten truke. Epeak, interes-tasa eta aldi-zkakotasuna kontuan hartzeaz gain, oso garrantzitsua da jaulkitzailearen kaudimena egiaztatzea.
- **Balore-burtsak.** Erakunde ofizialek araututako eta gainbegiratuak merkatu antolatutako dira. Burtsako akzioak eta baloreak edo harpidetza-eskubidea sorrarazten dutenak negoziatzeko eskumena duten bakarrik dira. Halaber, errenta finko publiko eta pribatua, produktu deribatuak, ziurtagiriak eta fondo kotizatuak ere kontratatzen dituzte.

### ERRETIROA prestatzeko AURREZKI/INBERTSIO finantza-tresnak

**Erretiroa bizitzako beste etapa bat,** askotan zoriontsuena, dela uste du gero eta jende gehiagok. Espainia bizi-itxaropenik luzeena duen Europako herrialdea da, eta lan-bizitza bukatu ondoren urte asko bizitzea nahiko orokorra da.



## Oso komenigarria da lan-bizitzan zehar erretiroa prestatzea eta aurreikustea

Baina arazo bat sortzen da: familiako diru-iturri bakarra pentsioa izaten da. Gainera, pentsioaren zenbatekoa lan-soldatarena baino txikiagoa izaten da. Horri guztiari beste arazo bat gehitu behar diogu. Jakinekoea denez, egungo pentsio-sistema publikoaren etorkizuneko jarraikortasuna kolokan dagoela diote.

Beraz, oso komenigarria da lan-bizitzan zehar aurreztutako diruaren zati bat **erretiroa prestatzera eta aurreikustera** bideratzea.

Lanean ari garenean, erretirorako aurrezte finantza-helburutzat hartu behar dugu. Jokabiderik zuhurrena **dibertsifikatzea** da, arriskuak saihesteko eta aurrezkiei etekina ateratzeko.

Oro har, zenbat eta gazteagoa izan langilea, orduan eta inbertsio-politika gogorragoak egin ditzake. Hau da, erretirorako urte asko geratzen bazaizkigu, nolabaiteko arriskua duten produktuetan kapital-portzentaje handiagoa inberti dezakegu, gehiago irabazteko. Erretiro-adinera hurbildu ahala, berriz, zuhurrago jokatu eta aukera kontserbatzaileagoetan inbertituko dugu.


Hona hemen produkturik ezagunenak:

- **Pentsio-planak:** Epe luzerako aurrezkiak, erretiroari lotuak. Beste kontingentzia batzuk ere estaltzen dituzte: adibidez, lanerako ezintasuna, heriotza eta mendekotasun handia.

Hiritarrei Gizarte Segurantzaren erretiro-prestazioak osatzeko aukera eskaintzeko sortuak, estatu-araudiaren arabera gauzatu dira. Pentsio-planetan egindako urteko ekarpenek zerga-abantailak dituzte, eta errenta-aitorpeneko zerga-oinarria murriztu egiten dute (gehieneko muga jakin bateraino).

- **Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeak (BGAE):** Pentsio-planen antzeko ezaugarriak eta helburuak dituzte. Desberdintasun nagusiak bi dira: arauak eta legeak Eusko Jaurlaritzak onartzen ditu eta kapitala 10 urtera (irekitzedatatik aurrera) berreskura daiteke. BGAE-ek ere dedukzioak dituzte PFEZan, gehieneko muga jakin batzuetaraino.
- **Aurreikuspen Plan Bermatuak (APB):** Bizitza-aseguruak dira, eta sortutako kapitala kasuan kasuko kontingentzia (oro har, erretiroa) gertatzen den unean jasotzen da. Pentsio-planen antzeko funtzionamendua dute, baina kapitala eta interes-tasa bermatuta egoten dira.
- **Aurrezki Sistematikorako Plan Indibiduala (ASPI):** Aurrezki-produktua da, aurreikuspenekoa baino gehiago. Aseguru mota horretan, biziarteko errenta bermatua sortzen da kapital-ekarpenak eginez. Ez du zerga-dedukziorik.
- **Erretiro-aseguruak:** Aldizkako kuotak ordainduz, kapital bermatua sortzen da epe luzerako. Ez dute zerga-abantailarik, eta hiru modutan eskura daitezke: kapitala kobratuz edo aldi baterako errenta zein biziarteko errentaren bidez.



A person is shown from the side, looking out a large window. They are holding a black smartphone in their right hand. The background outside the window is a blurred cityscape. The text is overlaid on the left side of the image.

Erretiroa hartzeko adina hurbildu  
ahala, inbertsioak egiteko aukera  
kontserbadoreagoak hobetsi  
behar ditugu

## Talde horrentzako finantzaketa-maileguak eta -konponbideak

- **Kreditu-txartelak.**
- **Kontsumorako maileguak:** ibilgailuak, etxetresna elektrikoak, altzariak... finantzatzeko. Berme pertsonala dute, hau da, ordaintzeari utziz gero, norbere ondasunekin erantzun behar izaten da.
- **Bigarren etxebizitzarako hipoteka-mailegua:** bigarren etxebizitza edo apartamentua erosteko.

## Talde horrentzako beste produktu eta zerbitzu egoki batzuk

- **Ibilgailu-aseguruak:** Legearen arabera, ibilgailu-aseguruak kontratatzea derrigorrezkoa da: gutxienez, istripuetan gidariaren erantzukizun zibilaria aurre egiteko bestekoa. Gutxieneko estaldura horrez gain, borondatezko beste hainbat ere eskaintzen dira aukeran: norberaren kalteak, bidaiariak, lapurreak, kristal-hausturak, babesa, erreklamazioak etab.
- **Bizitza-aseguruak:** Aseguratuaren heriotza-arriskua edo erabateko baliaezintasun iraunkorra estaltzen dute hitzartutako epean zehar, kontratuan finkatutako kopurua ordainduz gero. Epea urtebetekoa izaten da oro har, eta gero berriztatu egiten da.
- **Istripu-aseguruak:** Bizitza-aseguruak baino merkeagoak dira. Aseguratuari kapital jakin bat bermatzen diote, istripu baten ondorioz behin-behineko nahiz betiko baliaezintasuna edo heriotza gertatuz gero.
- **Osasun-aseguruak:** Medikuntza pribatua osasun-estaldura jakin bat bermatzen duen poliza. Gizarte Segurantzaren osasun-laguntza ordezkatzeko edo osatzeko kontratatzen da.

# 4 Adinekoen taldea

Adineko bakoitzak bere ekonomia-egoeraren, finantza-kulturaren eta lan-bizitzan zehar erabilitako produktu eta zerbitzuen araberako finantza-produktu eta -zerbitzuak aukeratu ohi ditu. Erretiroa hartu ondoren, finantza-entitateekiko harremanak ez dira gehiegi aldatzen, gaur egun.

Beraz, aurreko ataleko produktu eta zerbitzu guztiak baliagarriak dira adinekoentzat, eta, horregatik, ez ditugu errepikatuko. Atal honetan, erretiro-pentsioa osatzeko diru-sarrerak lortzea helburu duten produktu eta zerbitzuak besterik ez ditugu aipatuko. Azken horiek ezaugarri bereizgarri bat dute: norbere jabetzako etxebizitza eman behar da bermetan.

## Erretiro-garaian etxebizitzaren bidez diru-sarrerak osatzeko moduak

Norbere jabetzako etxebizitza duten adinekoek hainbat aukera dituzte diru-sarrera osagarriak lortzeko, eta, horrela, bizi-kalitatea handitu eta erretiroaz gozatzeko:

- **Alderantzizko hipoteka.** Finantza-entitateek produktu hori sortu dute, norbere jabetzako etxebizitza duten adinekoei hileroko diru-sarrera osagarriak lortzeko aukera eskaintzeko.

Mailegu mota bat da. Entitateak hileroko zenbateko jakin bat ordaintzen dio adinekoari, eta adinekoak, gainera, etxebizitzaren jabea izaten jarraitzen du. Bi aukera izaten ditu: bertan bizitzen jarraitzea edo jasotako diruarekin beste etxebizitza bat alokatzea edo erostea. Hileroko dirua egoitza ordaintzeko ere erabil dezake.

Oinordekoek etxebizitza eskuratzeko aukera izaten dute, adinekoak maileguaren bidez jasotako zenbatekoak itzuliz gero.

Zerga-abantailak ditu, hileroko jasotako diruarengatik ez baita zergarik ordaintzen. Bestalde, biziarteko errenta ez denez, biziarteko errenta-asegurua egitea komeni izaten da. Azken hori alderantzizko hipotekak kaleratzen dituzten entitateek eskaintzen dute, oro har.


- **Etxebizitza-pentsioa (biziarteko higiezin-errenta).** Alderantzizko hipotekarekin bezala, jabeak errenta jakin bat jasotzen du hileroko, baina etxearen jabetza aseguru-etxearen esku geratzen da. Dena den, adinekoak bertan bizitzeko eskubidea izaten jarraitzen du hil arte. Oinordekoek, ordea, ez dute etxebizitza eskuratzeko aukerarik. Hori da, izan ere, etxebizitza-pentsioaren alde txar nagusia.

### Emakume batzuen egoera bereziak erretiroaren aurrean

Emakume askorentzat erretiroa korapilatsuagoa izaten denez, funtsezkoa da bizitzako garai hori zehatzago antolatzea.

Esan bezala, emakume batzuen egoera berezia izaten da erretiroa hartzeko unean, hainbat arrazoirengatik:

- Askok gizonek baino soldata txikiagoak dituzte. Gainera, emakumeen artean lanaldi partziala nahiko hedatuta dagoenez, gutxiago kotizatzen dute gizarte-segurantzian, eta aurreikuspen-sistema pribatuetan ere ez dute horrenbeste parte hartzen.





Emakumeak gizonak baino luzaroagoan bizitzen dira: bost eta zazpi urte arteko aldea dago. Beraz, gehiago aurreztu behar dute bizitza-maila ona izaten jarraitzeko

- Batzuek lan-bizitzan eternaldia egiten dute seme-alabak edo mendekotasun-egoeran dauden familiako adinekoak zaintzeko. Dena den, joera hori murrizten ari da.
- Alargunduz gero, senarraren pentsioaren % 50 kobratzen dute.
- Emakumeen batez besteko bizi-itxaropena gizonena baino luzeagoa da: bost eta zazpi urte arteko aldea dago. Beraz, gehiago aurreztu behar dute bizitza-maila ona izaten jarraitzeko.

# Finantza-entitateekiko harremani eta kontsumo arduratsuari buruzko gomendioak

## Entitatea ongi aukeratzea

- Espainiako Bankuak gainbegiratutako finantza-entitate serioak aukeratu behar ditugu beti, eta "finantza-txiringitoak" alde batera utzi.
- Arrisku- eta kaudimen-kalifikazio onak dituzten entitate kaudimendun seguruak.
- Kalitatezko zerbitzuak, arreta ona, merkataritza-sare handia eta gure aurrezki-, inbertsio- eta finantzaketa-beharrekin bat datozen produktu eta zerbitzuak eskaintzen dizkigutenak.
- Gizartearen aldeko konpromisoak eta ingurumen-jarrera arduratsuak hartu dituztenak.

## Entitatea eta bere produktu eta zerbitzuak ezagutzea

- Finantza-entitateak ezagutzeko, web korporatiboak erabiliko ditugu.
- Gure beharrak kontuan hartuta, produktu eta zerbitzurik egokienak ezagutu eta aukeratu behar ditugu, ezaugarriak eta kostuei erreparatuta. Horrela, behar bezala eta helburu zuzenentzako erabiliko ditugu.

## Negoziatzea

- Finantza-entitateak malgua izan behar du uneoro, eta bezeroekin negoziatzeko prest egon.
- Loturarik handieneko bezeroei (entitate berean produktu eta zerbitzu gehien kontratatuta dituztenei) baldintza hobekak eskaini behar dizkie prezioetan, komisioetan...

## Konparatzea

- Finantza-entitateek eskaintzen dituzten produktuak (prezioa, kostuak, baldintzak eta ezaugarriak) konparatu egin behar dira.
- Ohiko etxebizitza erosteko hipoteka-mailegua kontratatzea oso erabaki garrantzitsua da, funtsezkoa erabat. Gehienetan, bizitzako kontratu ekonomikorik garrantzitsuena izaten da, eta urte askotarako lotura sorrarazten du.
- Beraz, hainbat entitatetara joan eta guztien baldintzak ezagutu behar dira, proposamenak konparatzeko eta negoziatzeko. Finantza-entitate serioak malguak izaten dira, eta hainbat produktu eta zerbitzu kontratatzen dituzten bezeroen leialtasuna gero eta gehiago hartzen dute kontuan.

## Informatzea eta erreklamatzea

- Entitatearekiko harremanetan gure eskubideak urratu direla iruditzen bazaigu, Bezeroa Babesteko Zerbitzura joko dugu.
- Bezeroaren ustez, Zerbitzuaren erabakia egokia ez bada edo sinatutako kontratuarekin bat ez badator, Espainiako Bankuaren Erreklamazio Zerbitzura jo dezake.

## Aurrezkiak dibertsifikatzea

- Aurrezki guztiak inoiz ere ez dira ezarri behar inbertsio-produktu berean.
- Hainbat inbertsio-produktu aukeratzea da egokiena: batzuk seguruagoak, beste batzuk errentagarriagoak, beste zenbait arriskutsuagoak baina errentagarritasun handiagoa lortzeko modukoak etab. Produktuen ezaugarriak elkarren osagarriak izango dira, eta denen artean gure profilaren arabera eskaintza osatuko dute.
- Finantza-entitateen egokitasun-testa egitea gomendagarria da, bezero bakoitzak nolako arriskuak har ditzakeen eta hartu nahi dituen jakiteko.
- Egokitasun-testetan hainbat galdera egiten dira, finantza-entitateak bezero bakoitzaren aurretiazko ezagutza eta esperientzien, inbertsio-helburuen eta finantza-egoeraren berri izan dezan. Aipatutako datuei esker, entitateak inbertsiorik egokienak gomendatzen dizkio inbertsioegile bakoitzari. Zorrorei buruzko aholkularitza- edo -kudeaketa zerbitzuak ematen hasi aurretik egin ohi da testa.

## Kontuz zorrekin

- Itzultzeko gai garen maileguak besterik ez ditugu eskatuko.
- Oro har, maileguen hileko kuotak ez du gainditu behar hileko sarreraren % 40.
- Kreditu-txartelak zentzuz erabili behar dira, gehiegizko zorrik egin gabe.

